- *berakatzak ekar biarrien kinpulek ekar txus (berakatzak ekarri beharrean kipulak ekarri ditu)*

### **ORDUKO**

- *entzun orduko esetu dot (entzun orduko ezagutu dut)*
- *gu dxoan orduko dxoanta egon dire (gu joan orduko joanda egon dira)*
- *eurek etorri orduko gu beti gaus bierrien (eurek etorri orduko gu beti gagoz beharrean)*
- *saguek danak, ukutu orduko iltxen ditzus (saguak denak, ikutu orduko hiltzen ditu)*
- *itxen orduko baltzitzute egoten da ardidxe (etzan orduko baltzitura egoten da ardia)*
- *gu dxoan orduko dxoanta egon dire (gu joan orduko joanda egon dira)*

### **ORDUREKO**

- *soloan buelta erdi iñ ordureko, bedxe il in dxaken baten golpien (soroan buelta erdi egin ordurako, behia hil egin zitzaion baten kolpean)*
- *eguskidxe urten ordureko en jeneral esaten dxen (eguzkiak irten ordurako gehienetan esaten zuen)*

### **BAÑO LELAU**

- *dxan beño lelau eskuek garbitxu ixus (jan baino lehenago eskuak garbi itzazu)*
- *orduen itxen dere, eskondu beño lelau (orduan egiten dute, ezkondu baino lehenago)*
- *kendu bear da bestieri nasteu baño lenau (kendu behar da besteei nahastu baino lehenago)*
- *ori in beño lelautxuau, ta gero gedxerak dxote siren, bai, oiñ esta botaten gedxerari pere baye (hori egin baino lehentxoago, eta gero deierak jotzen ziren, bai, baina orain ez da botatzen deierarik ere baina)*

# BAKIOKO HIZTEGIA

## ARTIEN

- *orrek etorri artien emen egongo gara (horiek etorri artean hemen egongo gara)*
- *itxagon ingo du akabartien (itxaron egingo dugu amaitu artean)*
- *baye kargu artzen deu amabixik illartien a umie (baina kargu hartzen du amabixik hil artean ume hura)*
- *aguenteu enbriek eta besterik eseberes, segidu ill artien (iraun andrek eta besterik ezer ere ez, segitu hil artean)*

Indarra edo enfasia areagotzeko "ARIK ETA" erabiltzen da; adibidez:

- *kanikie bota gora ta tabieri bueltie emon ta olan, arik eta batak edo bestiek galdu artien (kanika bota gora eta tabari buelta eman eta holan, harik eta batak edo besteak galdu artean)*
- *ta gero segidu dxoten arik eta amasaspi kanpa dxo artien (eta gero segitu jotzen harik eta hamazazpi kanpai jo artean)*

## IXEN ESİK

- *dxoan dire danak anaidxie ixen esik (joan dira denak anaia izan ezik)*
- *etor dire danak ori ixen esik (etorri dira denak hori izan ezik)*

## AUNKE

Berau gorago ikusiko "-ARREN" eta "-AITTIK"en ordeaz inoiz edo behin agertzen da:

- *aunke asko etorri danak dxango deure (asko etorri arren denek jango dute)*
- *aunke errikoa ixen nik estot esetuten (herrikoa izan arren nik ez dut ezagutzen)*
- *enedxo emon aunke beluneko eskatu (ez diezaioket eman belauniko eskatu arren)*
- *ori mutille esta lotzen etzien aunke denpora txarra iñ (mutil hori ez da lotzen etxean eguraldi txarra egin arren)*
- *aunke eskatu es emon inyosku (eskatu ez arren eman egin digu)*
- *aunke asko etorri danak dxango deure (asko etorri arren denek jango dute)*

## SELAN... ALAN...

- *selan koxu alan dxaten txus (zelan hartu halan jaten ditu)*

- *selan irebasi alan gastetan deu (zelan irabazi halan gastatzen du)*
- *selan etorri alan dxesarten dire (zelan etorri halan jezartzen dira)*

## 30.2. ADITZ IZENAK

Aditz izena behin lortuz gero, beroni deklinabidearen hainbat kasu marka erants dakizkioke. Atal honetan aditz izenari erants dakizkiokeen kasu markak eta euron erabilerak ikusiko ditugu.

## ABSOLUTUA

Aditz izena absolutu kasu markarekin gune bitan ager dakiguke, subjektu eta objektu guneetan; adibidez:

- *ainbet biderres toke dxaku aixeri ereitxie bere (hainbat biderrez suertatu zaigu harexeri eragitea ere)*
- *gusteko leskixu beskari bet dxatie egun beten (gustatuko litzaizuke bazkari bat jatea egun baten)*
- *oba da dxoatie ontxe (hobe da joatea oraintxe)*
- *ori esatie esta ona (hori esatea ez da ona)*
- *ori gure dot etortie (hori gura dut etortzea)*
- *astu in dxat atie serratutie (ahaztu egin zait atea ixtea)*
- *akorde sitxes erostie (gomuta zaitex erostea)*
- *kantzeta nau bedarra ebatie (nekatuta nago belarra ebakitzea)*
- *orrek gure deure emen egotie (horiek gura dute hemen egotea)*
- *ibilli esitxie da txarra (ibili ezitea da txarra)*

## ERGATIBOA

- *ondo ikusi esitxiek buruko miñe emoten deu (ondo ikusi eziteak buruko mina ematen du)*

## DATIBOA

- *orrek fumetieri itxi tzo (horrek erretzeari utzi dio)*

## PARTITIBOA

- *orre tausent lekuen estau oterik (horiek dagozen lekuan ez dago egoterik)*

# BAKIOKO HIZTEGIA

## SOZIATIBOA

- *emen egotias kontentu nau (hemen egoteagaz pozik nago)*
- *posi nau ukustias (pozik nago ikusteagaz)*
- *txakurrek ausitxen deu saratie entzutiegas batera (txakurrak ahausi egiten du zarata entzuteagaz batera)*

## INSTRUMENTALA

- *ba labarako ixete san andidxao ero, errama mieaoak ixetes (ba laberako izaten zen handiagoa edo, adarra meheagoak izatez)*

## MOTIBATIBOA

- *afaridxe dxan esitxiarren dxoan dire (afaria jan ezitearren joan dira)*
- *ariñ ibiltxiarren dxeusi de (arin ibiltzearren jausi da)*

## INESIBOA

- *funerala intxe, dxoate san bakotxa mesie ataraten (hileta eginda, joaten zen bakoitza meza ateratzen)*
- *astoakas dxoaten giñen Bermioara bendejie saltzen (astoakaz joaten ginen Bermeora bendejia saltzen)*
- *gu topetan dxoate sien (gu topatzen joaten ziren)*
- *munarridxe sartzien etorri siren (munarriak sartzien etorri ziren)*
- *atrebidu de koistan (ausartu da hartzen)*
- *basoa on da erretan (basoa egon da erretzen)*
- *dxaten emon dostie (jaten eman didate)*
- *emen lotu de afaritxen (hemen lotu da afaltzen)*
- *guri amak eta aitxek estoskuen isten dxoaten baye dxoan gara (guri amak eta aitak ez ziguten uzten joaten baina joan gara)*
- *ikesi dot txistue dxoten (ikasi dut txistua jotzen)*
- *ikusi sitxut etorten (ikusi zaitut etortzen)*
- *kontestetan dxakin yeu (erantzuten jakin du)*
- *koxu deure ostuten (hartu dute osten)*
- *nik orreri irekatzi tzet itxen (nik horri irakatsi diot egiten)*
- *ori erresa da itxen (hori erraza da egiten)*
- *orrek estudixetan segitan deu (horrek estudiatzen segitzen du)*

- *orrek kantetan daki (horrek kantatzen daki)*
- *oyen sartzen lagunduten dotzo (ohean sartzen laguntzen dio)*
- *pasetan itxi dostie (pasatzen utzi didate)*

## LEKU GENITIBOA

Beronek lau erabilera desberdin eduki ditzake; konpletiboa, finala, izen laguna eta aditz laguna. Hona hemen esaldi batzuk:

- *a okelie gero ederto ote san lapikoan dxateko (okela hura gero ederto egoten zen lapikoan jateko)*
- *a sartzien tzegun, estomagutik libretako (hura sartzien genion, estomagutik libratzeko)*
- *ak eseuen itxen saltzeko (hark ez zuen egiten saltzeko)*
- *belarriko miñe kentzeko lenau itxe san oridxo bota (belarriko mina kentzeko lehenago egiten zen orioa bota)*
- *Bermiora dxoateko enbrak eusokoak batzen siren (Bermeora joateko andreak auzokoak batzen ziren)*
- *bost errieleko bat eskatuten dotzo abadiak ori kentzeko (bost errealeko bat eskatzen dio abadeak hori kentzeko)*
- *dxausteko moduen egon da (jausteko moduan egon da)*
- *dxosteko makiñe apurtu inye (josteko makina apurtu egin da)*
- *etor dire gues berba itxeko esperantzian (etorri dira gugaz berba egiteko esperantzian)*
- *exie bakixu artoa eraitzekoa (exea badakizu artoa ereitekoa)*
- *gure amak eukitxen dxen orrasidxe istue sorriddexek sertutekoa (gure amak edukitzen zuen orrazi estua zorriak zertzekoa)*
- *iñor esan eroatekorik egon (inor ez zen eroatekorik egon)*
- *ori dau etorteko (hori dago etortzeko)*
- *orrek balidxo deu dxateko (horrek balio du jateko)*
- *orrek billurre deko dxeusteko (horrek bildurra dauka jausteko)*
- *txartel bat koxu bear ixete san bijilidexek itxeko, eta gitxiau itxeko (txartel bat hartu behar izaten zen bijiliak egiteko, eta gutxiago egiteko)*

## BAKIOKO HIZTEGIA

- *umiek lo itxeko bere kante itxen tzien*  
(*umeak lo egiteko ere kantatu egiten zien*)

### -TEKOTAN

- *txarto itxekotan oba itxi* (*txarto egitekotan hobe utzi*)
- *txarto berba itxekotan oba ixilik egon*  
(*txarto berba egitekotan hobe ixilik egon*)

### EZEZKOAK

Ezezkoetan "EZ" aditzondoa "-TE"ren aurrean agertzen da:

- *ondo ikusi esitxiek buruko miñe emoten deu* (*ondo ikusi eziteak buruko mina ematen du*)
- *ibilli esitxie da txarra* (*ibili ezitea da txarra*)
- *berdurie dxaten dot loditxu esitxiarren*  
(*berdura jaten dut loditu ezitearren*)
- *afaridxe dxan esitxiarren dxoan dire*  
(*afaria jan ezitearren joan dira*)

### -KERAN

- *etzetik urtekeran txakurrek aginke in dotzo*  
(*etxetik irtekeran txakurrak haginka egin dio*)
- *ixikeran apurtu in de giltze* (*itxikeran apurtu egin da giltza*)
- *asikeran nik esetu dot* (*hasikeran nik ezagutu dut*)

### 30.3. ASPEKTUAK

Ataltxo honetan aspektu burutu, ez-burutu eta geroa egiteko erabiltzen diren baliabideak aurkeztuko ditugu.

#### ASPEKTU BURUTUA

Aditz partizipioa eta laguntzailea batukeran, partizipioa "eu" amaieraduna den kasuetan azken hau "e" bihurtzen da:

pase da	pentze dot
plante da	kobre dot
akabe dot	akorde nas

"ri", "li" eta "si" amaieradunen kasuan azken "i" galtzen da zenbaitetan:

etor dxaken	ibil siren
ekar neuen	ikus dot

#### ASPEKTU EZBURUTUA

Aspektu honen alomorfoak TEN, ETAN, TZIEN edo TZEN eta TAN dira. Jarraian bakoitzaren erabileraren adibide batzuk emango ditugu:

#### TEN

etorten	dxausten
esaten	dxaten
ukusten	egoten
koxuten	ixeten
leiduten	etorten
ekarten	batuten
ataraten	dxoten

Alomorfo honen aurrean "i" bat egonez gero palatalizatu egiten da:

itxen	imintxen
eukitxen	iltxen

#### ETAN

libretan	asmetan
akordetan	piketan
pasetan	kalmetan
kanbidxetan	akabetan
pentzetan	kobretan
urtetan	erretan

#### TZEN edo TZIEN

sartz(i)en	sertz(i)en
kentz(i)en	galtz(i)en
artz(i)en	saltz(i)en
lotz(i)en	batz(i)en

#### TAN

mantenitan	segitan
koitan	otzitan
dirijitan	utzitan
agintan	entenitan

#### GEROA

Aspektu honen ezaugarria "-KO" dugu nagusiki, berau aditz partizipioari erasten zaio; adibidez:

atarako	artuko
botako	lotuko
erreko	ekarriko
gordeko	ausiko

"eu" amaierako partizipioakaz "ko" gehitu ez eze, "eu" "e" bihurtu ere egin behar da:

## BAKIOKO HIZTEGIA

arregleko	paseko
topeko	pentzeko
akabeko	kobreko

"n"z amaituko partizipioakaz "go" erabiltzen da

ingo	urtengo
dxango	eraingo

### 30.4. ADITZ LAGUNTZAILEAK

Aditz laguntzaileen taulak aurkezteko NOR, NOR-NORI, NORK-NOR eta NORK-NORI-NOR ohiko sailkapenari jarraituko diogu

#### NOR

Indikatibo oraina	Indikatibo iragana
nas	nitzen/nitxen
as	
da	san
gara	gintze(sa)n/giñen
sara	siñen
sarie	siñien
dire(s)/die	si(r)en

ALOKUTIBOAK	
<b>oraina</b>	<b>iragana</b>
nok	neitzoan
dok	soan
gosak	geintzosan
dosak	soasen

Baldintza	Ahalezko oraina
nitxike	nitxike
litxike	litxike/leitxe/lei
gintxiskes	gintxiskes
sintxikes	sintxikes
sintxikese	sintxikese
litxikes	litxikes

Subjuntiboa
neitxen
daitxen/deitxen
g(e)itxesan
saitxesan/seitxesan
seitxesan
deitxesan

#### NOR-NORI

HURA	HAIEK
dx(a)s)t/dast/dat	dx(a)s)tes/dastes
dxako/dako	dxakos
dxaku	dxakus
dxatzu	dxatzus
dxatzue	dxatzues
dxak(i)e/dake	dxakies

ALOKUTIBOAK	
<b>HURA</b>	<b>HAIEK</b>
dxatek	dxatesak
dxakok	dxakosak
dxakuk	dxakusek
dxakiek	dxakiesak

HURA	HAIEK
dx(a)s)ten/dasten	dxatesan/astesan
dxaken/daken	dxakesen/dxakosen
dxakun	dxakusen
dxatzun	dxatzusen
dxatzuen	dxatzuesan
dxakien/dakien	dxakiesan

Hauezaz ostera: dxakon, dxakesan eta aoristikoak diren honako hauek ere jaso ditugu: ekiden (niri), ekidxon (hari), ekigun (hura-guri), ekigusen (haiek-guri)

HURA	HAIEK
leskist	leskistes
leskidxo	leskidxos
leskigu	leskius
leskixu	leskixus
leskixue	leskixues
leskidxe	leskidxes

HURA	HAIEK
dakiden	dakidesan
dakidxon	dakidxosan
dakigun	dakiusen
dakixun	dakixusen
dakixuen	dakixuesan
dakidxen	dakidxesan

#### NORK-NOR

NI	GU
nok	gosak
neu	gaitxus/g(e)itxus
nosu	gosus
nosue	gosues
neurie	gaitxues/g(e)itxues

# BAKIOKO HIZTEGIA

<b>HURA</b>	<b>HAI EK</b>
dot	doas/dotes
dok	dosak
deu	d(e)itxus/dotxus
du	dus
dosu	dosus
dosue	dosues
deurie/deure/dere	d(e)itxues

<b>ZU</b>	<b>ZUEK</b>
s(a)itxut/seitxut	saitxuete
s(a)itxu/seitxu	s(a)itxue/seitxue
-	-
s(a)itxue/seitxue	s(a)itxue/seitxue

## ALOKUTIBOAK

<b>NI</b>	<b>GU</b>
neidxok	geidxosak
neidxuek	geidxuesak

<b>HURA</b>	<b>HAI EK</b>
dxoat	dxoasat
dxok	dxosak
dxuk	dxusek
dxuek	dxuesak

<b>NI</b>	<b>GU</b>
nendun/neidxen	gendusen/gi(n)txusen
nendusun	-
nendusuen	-
nenduen/neurien	genduesan/gitxuesan

<b>HURA</b>	<b>HAI EK</b>
neuen	neuesen/nitxu(se)n
seuen/dxen	dxesan/seitxu(se)n
gendun	gendusen
sendun	sendusen
senduen	senduesan
se(u)rien/seren/dxien	sitxuesan/dxiesan

<b>ZU</b>	<b>ZUEK</b>
-	-
sendusen	senduesan
-	-
senduesan	senduesan

<b>HURA</b>	<b>HAI EK</b>
neke	nekes
leke	lekes
genke	genkes
senke	senkes
senkie	senkies
lekie	lekies

<b>HURA</b>	<b>HAI EK</b>
neike/nei	neikes/neis
leike/lei	leikes/leis
geinke	geinkes
seinke	seinkes
seinkie	seinkies
leikie	leikies

<b>HURA</b>	<b>HAI EK</b>
deiten	deitesan
deidxen	deidxesan
deigun	deigusen
deixun	deixusen
deixuen	deixuesan
deidxien	deidxiesan

## NORK-NORI-NOR

<b>NIRI (s)</b>	<b>NIRI (p)</b>
dost/doste	dostes
dostesu	dostesus
dostesue	dostesues
dostie/doste	dosties

<b>ZURI (s)</b>	<b>ZURI (p)</b>
dotzut	dotzudes
dotzu	dotzus
dxatzu	dxatzus
dotzue	dotzues

<b>HARI (s)</b>	<b>HARI (p)</b>
dotzet	dotzetes
dotzo	dotzos
dotzegu/dotzu	dotzus
dotzesu	dotzesus
dotzesue	dotzesues
dotz(i)e	dotzies

<b>GURI (s)</b>	<b>GURI (p)</b>
dosku	doskus
doskue	doskues

## BAKIOKO HIZTEGIA

<b>ZUEI (s)</b>	<b>ZUEI (p)</b>
dotzutie	dotzuties
dotzue	dotzues
dxatzue	dxatzues
dotzue	dotzues

<b>HAIEI (s)</b>	<b>HAIEI (p)</b>
dotzet(i)e	dotzietes
dotzie	dotzies
dotzegu/dotzu	dotzus
dotzesu	dotzesus
dotzesue	dotzesues
dotzie	dotzies

### ALOKUTIBOAK

<b>NIRI (s)</b>	<b>NIRI (p)</b>
dxostek	dxostesak
dxostiek	dxostiesak

<b>HARI (s)</b>	<b>HARI (p)</b>
dxotzet	dxotzesat
dxotzek	dxotzesak
dxotzeguk	dxotzusek
dxotziek	dxotziesak

<b>GURI (s)</b>	<b>GURI (p)</b>
dxoskuk	dxoskusek
dxoskuek	dxoskuesak

<b>HAIEI (s)</b>	<b>HAIEI (p)</b>
dxotziet	dxotziesat
dxotziek	dxotziesak
dxotzeguk	dxotzusek
dxotziek	dxotziesak

<b>NIK (s)</b>	<b>NIK (p)</b>
notzen/neutzien	neutzesan
notzun	notzusen
notzuen	notzuesan
notzien/neutzien	neutziesan

<b>ZUK (s)</b>	<b>ZUK (p)</b>
ostesun	ostesusen
tzesun	tzesusen
-	-
tzesuen	tzesuesan

<b>HARK (s)</b>	<b>HARK (p)</b>
osten/dosten	dostesan
otzen/eutzen/dotzen	otzesan
oskun/doskun	oskusen/doskusen
otzun/dotzun	otzusen/dotzusen
otzuen/dotzuen	otzuesan/dotzuesan
otzien/dotzien	otziesan/dotziesan

<b>GUK (s)</b>	<b>GUK (p)</b>
tzegun	tzegusen
tzeguen	tzeguesan

<b>ZUEK (s)</b>	<b>ZUEK (p)</b>
ostesuen	ostesuesan
tzesuen	tzesuesan
-	-
tzesuen	tzesuesan

<b>HAIEK (s)</b>	<b>HAIEK (p)</b>
ostien/dostien	ostiesan
otzien/dotzien	otziesan
oskuen/doskuen	oskuesan
otzuen/dotzuen	otzuesan
otzuen/dotzuen	otzuesan
otzien/dotzien	otziesan

<b>HURA</b>	<b>HAIEK</b>
neuskidxo	neuskidxos
leuskidxo	leuskidxos
geuskidxo	geuskidxos
seuskidxo	seuskidxos
seuskidxue	seuskidxues
leuskidxue	leuskidxues

<b>HURA</b>	<b>HAIEK</b>
neskidxo/nedxo	neskidxos/nedxos
ledxo	ledxos
geskidxo	geskidxos
seskidxo	seskidxos
seskidxue	seskidxues
leskidxue	leskidxues

<b>HURA</b>	<b>HAIEK</b>
deisten	deistesan
deidxon	deidxosan
deiskun	deiskusen
deitzun	deitzusen
deitzuen	deitzuesan
deidxuen	deidxuesan



# BAKIOKO HIZTEGIA

## 31. JUNTAGAILUAK

Atal honetan juntagailu desberdinen erabileraz jaso ditugun adibideak emango ditugu.

### ETA KOPULATIBOA

- *orrek in yeu bierra ta geuk eroan du (horrek egin du beharra eta guk eroan dugu)*
- *ayen ure erdire ekarri txe a edan (haiek ura erdira ekarri eta hura edan)*
- *orrek ekartxus olloak eta beran anaidxiek iltxus (horrek ekarri ditu oiloak eta beraren anaiak hil ditu)*

### ETA KAUSALA

- *geuk esetu du geuk in du te (geuk ezagutu dugu geuk egin dugu eta)*
- *banoa belu de ta (banoa belu da eta)*
- *eroaixu guardasola euringo deuela esalei txe (eroan ezazu guardasola euri egingo duela esan liteke eta)*
- *arixie orduen obrak itxeko useta san, arixie egur gogorra da ta (haritza orduan lanak egiteko usatzen zen, haritza egur gogorra da eta)*
- *su atxa beño gogorrau ixen sara ta (zu haitza baino gogorragoa izan zara eta)*
- *ogidxe bille dxoan, ta kuskurre dxanta es etorri pekatue da ta (ogia bila joan, eta kuzkurra janda ez etorri bekatua da eta)*

### BERE/BE

- *ekar dot dxatekoa ta erosi dot ogidxe bere (ekarri dut jatekoa eta erosi dut ogia ere)*
- *atzo esteu deitxu te geur besta etorri (atzo ez du deitu eta gaur ere ez da etorri)*
- *ondiño alkondara bape erosikot (ondino alkondara bat ere erosiko dut)*
- *orrek enplastu bedarrak orrepeño obarik mundun bere estau (horiek enplastu belarrak, horiek baino hoberik munduan ere ez dago)*
- *bautiseu bere, oiñ edonos itxen da (bateatu ere, orain edonoiz egiten da)*
- *berakatza pere, antxe dxote sien gatzagas (berakatza ere, hantxe jotzen ziren gatzagaz)*
- *etorriko da anaidxie ta gánera etorko da lengusue bere (etorriko da anaia eta gainera etorriko da lehengusua ere)*

### BERE BAI/BE BAI

- *amak in deu beskaridxe tafaridxe be bai (amak egin du bazkaria eta afaria ere bai)*
- *alkola be bai imintxen tzegun, abarketa sarra be bai (alkohola ere bai ipintzen genion, abarketa zaharra ere bai)*
- *a dala ona esaten deure beraskoatarako, kinpulie egositxe be bai (hura dela ona esaten dute beherazkoetarako, kipula egosita ere bai)*
- *bideintzen be bai baye lapatan gure anaidxieri asko gustetan daken (bidegintzan ere bai baina lapatan gure anaiari asko gustatzen zitzaion)*
- *eta beste baten be bai, ididkek andrieri adarka iñ (eta beste baten ere bai, idiak andreari adarka egin)*
- *eta erdire urtetan sendun, ori eskolan bere bai (eta erdira irteten zenuen, hori eskolan ere bai)*
- *nire aitxek itxen dxesan alau sillek, ta sestoa pe bai (nire aitak egiten zituen halako aulkiak, eta otzarak ere bai)*
- *txapelari bueltie emonta bere kentzien da, sein sillieri bueltie emon be bai (txapelari buelta emanda ere kentzen da, zein aulkiari buelta eman ere bai)*

### BERE EZ

- *umie esta etorriko taitxe beres (umea ez da etorriko eta aita ere ez)*
- *atzo esteu deitxu te geur besta etorri (atzo ez du deitu eta gaur ere ezta etorri)*

### BAKARRIK... BERE (BAI)

- *es bakarrik etori dire eurek neu be bai (ez bakarrik etorri dira eurak neu ere bai)*

### EDO

- *se gusu au edori? (zer gura duzu hau edo hori?)*
- *emeie falta deu edo arra falta deu (emea falta du edo arra falta du)*
- *estaipa okela apur bet edo egoten basan (ez dakit okela apur bat edo egosten zen)*
- *munen imintxe san edo maidxen ganien edo kaja baten ganien (munan ipintzen zen edo mahaiaren gainean edo kaxa baten gainean)*

# BAKIOKO HIZTEGIA

## ALA

- *estaitx diren ala emekoak ala Bilbokoak (ez dakit diren ala hemengoak ala Bilbokoak)*

## BATA... BESTE

- *bata da Sanudidxokoa ta béstie da Lesamakoa (bata Zamudiokoak eta bestea da Lezamakoa)*
- *batek ekar deu ardaua ta bestiek ekar deu ogidxe (batak ekarri du ardoa eta besteak ekarri du ogia)*
- *agas buruen dxote dxien bata eta bestie (haregaz buruan jotzen zuen bata eta bestea)*

## NEI/NAI

- *andidxe ixen nai txikerra ixen bardinye (handia izan nahi txikarra izan berdina da)*
- *nai etzien nai kanpoan beti itxen deu euskera berba (nahi etxean nahi kanpoan beti egiten du euskara berba)*
- *nai etzien nai kanpoan beti dau berbetan (nahi etxean nahi kanpoan beti dago berbetan)*
- *goixién nai atzaldien lagun asko dabill (goizean nahi arratsaldean lagun asko dabil)*
- *itxe siren berotu arek, sutunik imiñi, nai albos (egiten ziren berotu haiek, zutunik ipini, nahi alboz)*

## ESIEN

- *titidxe galdu itxen da igual kasu in esien (titia galdu egiten da igual kasu egin ezean)*
- *eskapeu itxen deure kasu iñ esien (eskapatu egiten dute kasu egin ezean)*

## SEIÑ

- *txapelari bueltie emonta bere kentzien da, sein sillieri bueltie emon be bai (txapelari buelta emonda ere kentzen da, zein aulkari buelta emon be bai)*
- *oiñ itxen da bost edo seigarren illebetien seiñ urte betegarrenien (orain egiten da bost edo seigarren hilabetean zein urte betegarrenean)*

## ALDERDI BETETIK... BAYE BESTE ALDERDITXIK

- *alderdi betetik billurre deket baye beste alderditxik dxoan in gure neke (alderdi batetik bildurra daukat baina beste alderditik joan egin gura nuke)*

## EZ... EZ...

- *esteure ekarriko es beskaridxe ta es afaridxe (ez dute ekarriko ez bazkaria ez afaria)*
- *nik estot saltzen es beidxe ta es ididxe (nik ez dut saltzen ez behia eta ez idia)*

## EZ.... BERE EZ

- *umie esta etorriko taitxe beres (umea ez da etorriko eta aita ere ez)*

## BAYE

- *denpora ona da baye arrastien euridxe ingo deu (eguraldi ona da baina arrastegian euria egingo du)*
- *esan tzet baye estost siñestu gure (esan diot baina ez dit sinetsi gura)*
- *bai entzun in yot baye estaitx seaitxik (bai entzun egin dut baina ez dakit zergatik)*
- *ori atxiñeko berbié da baye estosu entzungo (hori antzinako berba da baina ez duzu entzungo)*
- *ori be entzun dot baye estaitx selan dan (hori ere entzun dut baina ez dakit zelan den)*
- *aldien orixe ixete san niri etxat tokeu ori baye (baserrian horixe izaten zen niri ez zait suertatu hori baina)*

## BAYE ALAN TA GUSTI

- *kotxien etorko dire baye alan ta gusti belu ixengo da (kotxean etorriko dira baina halan eta guzti belu izango da)*
- *eta gero proibidu ein dxien ebaten ta ingiruek baye alan ta gusti bere nik estaitx onek piñuek eta orrek galdu deure ori, gorostokidxe (eta gero galarazo egin zuten ebakitzen eta inguruak baina hala eta guztiz ere nik ez dakit pinu hauek eta horiek galdu dute hori, gorostia)*

## OSTERA

- *txakurre baltza da baye ostera katue suridxe da (txakurra beltza da baina ostera katua zuria da)*

## BAKIOKO HIZTEGIA

- *ni etzien lotu nas baye orrek ostera kalera dxoan dire (ni etxean lotu naiz baina horiek ostera kalera joan dira)*

### ESPABERE

- *suridxe egosten imin barik in bear da, espabere egosten imintxen basu, esteu urtetan klaru (zuria egosten ipini barik egin behar da, ezpere egosten ipintzen baduzu, ez du irteten argi)*
- *asi eta garatu itxen dire, espabere, orrek eta danak, ilberie da onena (hazi eta garatu egiten dira, ezpere, horiek eta denak, ilbera da onena)*
- *porrueri txe danari in bear dxake oiñ, asari txe, mamarroa itxen dxake espabere erugie ta (porruei eta denei egin behar zaie orain azari eta, mamarroa egiten zaie ezpere eruga eta)*
- *berorik andidxenien dxo bear dire soltetako, espabe estire soltetan (berorik handiengan jo behar dira soltatzeko, ezpere ez dira soltatzeko)*

### OSTANTZIEN

- *kolore artu bear deu, ardauden kolorie madaridxe, ostantzien aik madaridxe estire egosi (kolore hartu behar du, ardauden kolorea madariak, osterantzean madari haiek ez dira egosi)*
- *etzien ongo da edostantzien tabernan (etxean egongo da edo osterantzean tabernan)*
- *au dxan bear dosu ostantzien txiki lotuko sara (hau jan behar duzu osterantzean txiki lotuko zara)*
- *emen imin bear dot ostantzien estau lekurik (hemen ipini behar dut osterantzean ez dago lekurik)*
- *kotxien dxoan bear du ostantzien belu allegeko gara (kotxean joan behar dugu osterantzean belu ailegatuko gara)*
- *da ostantzien be antzutu itxen dire denporiegas, esteu ematen esnerik (eta osterantzean ere antzutu egiten dira denboragaz, ez du ematen esnerik)*
- *emoten doskuen ostantzien kandela bat, ta itxe oskun elixa sartzie (ematen ziguten osterantzean kandela bat, eta egiten zigun eliza sartzea)*

### SE

- *agaitxik estala itxen oin prosesiñorik, se kamiñotik dxoan bear deu (haregatik ez dela egiten orain prozesinorik, ze kaminotik joan behar du)*
- *baye niri bertzoak etxates akordetan se ostantzien bertzo politxek itxe sien (baina niri bertzoak ez zaizkit gomutatzen ze osterantzean bertso politak egiten ziren)*
- *esin tope i dxien se erradurek euki dxesan atzes (ezin topatu ei zuen ze perrak eduki zituen atzez)*
- *kendu bear dosu erara beren erara, es golpien, se an lotzien da (kendu behar duzu erara beraren erara, ez kolpean, ze han lotzen da)*
- *koipie bear deure, txarrixena apur bet se ostien sebuak gustu txarra emoten dotzo (koipea behar dute txarriarena apur bat ze osterantzean bilgorrak gustu txarra emoten dio)*
- *oin bere badekotelakoa deket datorren urterako bere, se ainbet in yot (orain ere badaukadalakoa daukat datorren urterako ere, ze hainbat egin dut)*
- *oiñ orrek danak kendu dire, se automobillek keje ei dire (orain horiek denak kendu dira, ze automobilak kexatu ei dira)*
- *se alperri te, txistuek bota ta edoser itxen deure (ze alperrik da, txistuak bota eta edozer egiten dute)*

### ESE

- *ba gure ixete seren beti, gari marsela ese bixer garidxe eukitxen deuela...(ba gura izaten zuten beti, gari marzela eze bizar gariak edukitzen duela...)*
- *ori berbie dxagi, ese oiñ esaten da dxagi esan ta askok estaki ser dan (berba hori 'jagi', eze orain esaten 'jagi' esan eta askok ez daki zer den)*

### AIN

- *au aiñ andidxe da esta atetik kabitzen (hau hain handia da ez da atetik sartzen)*

# BAKIOKO HIZTEGIA

## 32 MENPERAGAILUAK

### 32.1. -LA MENPERAGAILUA

Menperagailu honen erabilera, esaldi konpletiboetan aurkezteko, esaldi nagusiaren egitura mota bereiziko dugu. Berori baiezkoa, baiezko galdera edo ezezko galdera ete den, alegia.

#### Baiezkoetan:

- *akorde nas erosi inyosule (gomutatu naiz erosi egin duzula)*
- *gure amak esaten dxen saldie, familidxe euki deuenak, eta mamiñek gixonak dxaten txusela (gure amak esaten zuen salda, familia eduki duenak, eta mamiak gizonak jaten zituela)*
- *eun gramo, pentzetan dot ixeten dala (ehun gramo, pentsatzen dut izaten dela)*
- *bestiek esaten tzien bayetz semie bixiri tauela ta trunkill oteko (besteak esaten zion baietz semea bizirik dagoela eta lasai egoteko)*
- *berrogei egunien andriek sepulturie sabali tekola esate seuren (berrogei egunean andreak hilobia zabalik daukala esaten zuten)*
- *sorgiñena tirela esaten deure (sorginenak direla esaten dute)*
- *arimek purgatoridxotik urten esiñi tausela esaten dxen gure amak (arimak purgatoriotik irten ezinik dagozela esaten zuen gure amak)*
- *ori esaten da andran aixie dala (hori esaten da andren haizea dela)*
- *seuser in bear dala esate seren (zerozer egin behar dela esaten zuten)*
- *entzun dot emen ba gixon bat inyertzue daola (entzun dut hemen ba gizon bat indartsua dagoela)*
- *urtien urtien esate seuen oten dala sugoye (urtean-urtean esaten zuen egoten dela sugoia)*

#### Baiezko galderetan:

- *nor esan su etor dala? (nor esan duzu etorri dela?)*
- *esasu etor dala? (esan duzu etorri dela)*
- *suk pentzetan su etorriko direla? (zuk pentsatzen duzu etorriko direla)*

#### Ezezko galderetan:

- *esteu esan akabe deuriela? (ez du esan amaitu dutela?)*
- *estotzut esan txarto dauela ala? (ez dizut esan txarto dagoela ala?)*
- **-LA arestian ikusiko indikatiboko adizkiei ez eze, subjuntiboari ere erants dakioko; adibidez:**
  - *esaitzesu orreri dakarrela dana (esaiozu horri dakarrela dena)*
- **-LA subjuntiboarekin batera aginteraren hirugarren pertsonen ordeztu erabiltzen da; adibidez:**
  - *kaskarie euki deidxela gogorra (azala eduki dezala gogorra)*
  - *geldi geldi lotu ditzela an (geldi-geldi lotu dadila han)*
  - *estitxela dxoan (ez dadila joan)*
  - *estidxela dxan (ez dezala jan)*
  - *ekar deidxela (ekar dezala)*

#### -LA GERUNDIALA

- *ayeri atara bear tzus txoridxe barruen dala arrutzek (hari atera behar dizkiogu txoria barruan dela arrautzeak)*
- *ori bien dauela koxu idxen ondatxurre ta dxo dxen buruen (hori behean dagoela hartu zuen ondatxurra eta jo zuen buruan)*
- *gorantza soasela ikusi du (gorantza zoazela ikusi dugu)*
- *urte bete edo deketela edo olan ixen san (urtebete edo daukadala edo holan izan zen)*
- *ni akordetanas, neskato gastie nasela (ni gomutatzen naiz, neskato gaztea naizena ni)*
- *ayek ikusi itxen basiren an goidxen dausela, illuntzerako gora doasela, esaten seuen denpora ona dator bidzar bere (haiek ikusi egiten baziren han goian dagozela iluntzerako gora doazela esaten zuen eguraldi ona dator bihar ere)*
- *oin bere nik estot ebaten al dala, barikuetan (orain ere nik ez dut ebakitzen ahal dela, barikuetan)*

#### -LA BERE

- *edo gure ixen esteuela bere in yeu (edo gura izan ez duela ere egin du)*

# BAKIOKO HIZTEGIA

## **-LA TA**

- *martxa idxela ikeratute, inyer geyao dekola ta (joan zela ikaratuta, indar gehiago daukala eta)*
- *ba gause txarra dala ta, nik estot ños asmeu (ba gauza txarra dela eta, nik ez dut inoiz asmatu)*
- *ondo itxen tzola ta, estzen ondo ondo ingo baye berak sartute ondo itxen tzola ta beti (ondo egiten diola eta, ez zion ondo ondo egingo baina berak sartuta ondo egiten ziola eta beti)*
- *infernukoa tatosela ta, bajatu sien bera (infernukoak datozela eta, bajatu ziren behera)*
- *eta saldu in gure dxien asto suridxe ya sarra dala ta (eta saldu egin gura zuten asto zuria zaharra dela eta)*

## **-LAKO**

- *damutute nau dana estotelako dxan (damututa nago dena ez dudalako jan)*
- *esta etorri belu dalako (ez da etorri belu delako)*
- *katarroa dekolako bere itxen ixen du (katarroa daukalako ere egiten izan dugu)*
- *nik ikesi neuen ori, nik oki neuelako (nik ikasi nuen hori, nik eduki nuelako)*
- *asko eretxi otzelako ixen san (asko eritzi ziolako izan zen)*
- *orrek il siren basoak dxantzi direlako (horiek hil ziren basoak jantzi direlako)*

Honen ordezkari lekuko batzuek -LAKON ere erabiltzen dute; adibidez:

- *umie dauelakon sokorruke ta eroan seuen elixara (umea dagoelako sokorruka eta eroan zuen elizara)*

## **-LAKOA**

- *ekar deuelakoa dekot (ekar duelakoa daukat)*
- *Larrabetzukoa ixen salakoa dekot (Larrabetzukoa izan zelakoa daukat)*
- *oin bere badekotelakoa deket datorren urterako bere, se ainbet in yot (orain ere badaukadalakoa daukat datorren urterako ere, ze hainbat egin dut)*

## **-LAKOAN**

- *etor dalakoan nau (etorri delakoan nago)*
- *emon in tzegun guk, ba dxan ingo deurelakoan edo (eman egin genion guk, ba jan egingo dutelakoan edo)*

## **32.2. -N MENPERAGAILUA**

### **ERLATIBOZKOAK**

- *a txartela dekonak gitxiau itxe seuen (txartel hura daukanak gutxiago egiten zuen)*
- *txarridxe da geuserik munduen dauenik onena (txerria da gauzarik munduan dagoenik onena)*
- *ordun itxe san errematien bota se asko ote siren gure derenak a okelie (orduan egiten zen errematean bota ze asko egoten ziren gura dutenak okela hura)*
- *erraidxetik parajien lotzen dana da lelengo (marratik parajien lotzen dena da lehenengo)*
- *len amen kuartue dauen lekuen ba sera, bodegie egon san (lehen hamen gela dagoen lekuan ba zera, sotoa egon zen)*
- *gero lotzen dana da mokille (gero lotzen dena da mokila)*
- *gortie da garbitxuten dana (gorta da garbitzen dena)*
- *geu pasetan garen lekuko bidie legala, legala ori de (geu pasatzen garen lekuko bidea legala, legala hori da)*
- *umie in yeuenari, emoten tzien (umea egin duenari, ematen zioten)*
- *dxaten emontzet ekar sun txakurreri (jaten eman diot ekarri duzun txakurrari)*
- *ta ori imiñi miñe itxen dan lekuen (eta hori ipini mina egiten den lekuan)*
- *afrontue da paraje bat aixiek sarri dxoten deuen edo golpiek antxe dxoten deuen beti (afrontua da inguru bat haizeak sarri jotzen duena edo kolpeak hantxe jotzen duena beti)*
- *artoak Bakidxon dausenak a, asto batek dxango leukes (artoak Bakion dagozenak, asto batek jango lituzke)*
- *oin Loyun dauena Sorrotzen ixete san (orain Loiun dagoena Zorrotzan izaten zen)*

## **SUBJUNTIBOA + -N**

## BAKIOKO HIZTEGIA

Hona hemen -N menperagailuagaz batera subjuntiboak bete ditzakeen funtzioen adibide batzuk:

- *gure dot etor ditxen (gura dut etor dadin)*
- *estokure in deixun ori (ez dut gura egin dezazun hori)*
- *estot eskatu ekarri deidxien (ez dut eskatu ekar dezaten)*
- *seusegas kortadatxu bet iñ, ak odol txarrak urten deidxen (zerozegaz ebakitxo bat egin hark odol txarrak irten dezan)*
- *ta pasetan dosu esnie tela fin betetik, garbi on ditxen (eta pasatzen duzu esnea tela fin batetik, garbi egon dadin)*
- *amurrutu estaitxesan txakurreri emoteko, biribillek ixete sien ogidzek (amorra ez daitezen txakurrei emateko, biribilak izaten ziren ogiak)*
- *korridu didxen, bueltie emon eta korridu didxen ixo, ta lotu ditxen, ta korridu didxen arre (korri dezan, buelta eman eta korri dezan ixo, eta lotu daitezen, eta korri dezaten arre)*
- *orrek billurre deko kendu estaidxuen (horrek bildurra dauka ken ez diezaioten)*
- *sutie eskobie paseu barik es dxoan, angeruek dxantzan in deidxien (sutea eskoba pasatu barik ez joan, aingeruek dantzan egin dezaten)*
- *gusteko leskist emen olge deidxien (gustatuko litzaidake hemen olga dezaten)*
- *amak esan deu emen egon gitxesan (amak esan du hemen egon gaitezen)*

### SE + SUBJUNTIBOA

- *koxuixu umetxue punbale in sedeidxen (har ezazu umetxoa punbala egin ze dezan)*
- *estu batu bear ixete san gero solte sedixen (estu batu behar izaten zen gero solta ze daitezen)*

### - ENA

### Baiezkoetan

- *amen ikusten da jente asko dabillena (hamen ikusten da jente asko dabilena)*
- *bakixu akabe deuriena (badakizu amaitu dutena)*
- *entzun dot etor diena (entzun dut etorri direna)*

- *igerri tzut emekoa sarena (igarri dizut hemengoa zarena)*
- *konturotu nas or dauena (konturatu naiz hor dagoena)*
- *ulertutzut bidzar datorrena (ulertu dizut bihar datorrena)*

### Ezezkoetan

- *esta egidxe etor estana (ez da egia etorri ez dena)*
- *estau klaru erosi deuena (ez dago argi erosi duena)*

### Ezezko galderetan:

- *estotzut esan erosi dotena? (ez dizut esan erosi dudana?)*
- *estostesu antzik topeu emekoa nasena? (ez didazu antzik topatu hemengoa naizena?)*
- *suk estakixu kodañie esin dana euki, norberan ondoan dxisturidxe ta truboye dauenien? (zuk ez dakizu kodaina ezin dena eduki, norberaren ondoan juzturia eta trumoia dagoenean?)*

### Esklamazioetan:

- *grasidzek etor sarena! (eskerrak etorri zarena!)*
- *grasidzek ekar deuena (eskerrak ekarri duena!)*
- *seguru etor dana! (ziur etorri dena!)*

### -NIK

- *enas konturotu emekoa danik (ez naiz konturatu hemengoa denik)*
- *esteu esan akabe deurienik? (ez du esan amaitu dutenik?)*
- *estoste esan ingo deurienik (ez didate esan egingo dutenik)*
- *estot entzun geixorik daunik (ez dut entzun gaixorik dagoenik)*
- *estot pentzetan ekar deurenik (ez dut pentsatzen ekarri dutenik)*
- *estot pentzetan salbe sanik (ez dut pentsatzen salbatu zenik)*

### -ENEAN

### Lehenaldia

- *basoan ibil sirenien agertu sen (basoan ibili zirenean agertu zen)*

## BAKIOKO HIZTEGIA

- *Eibarren fabrikie monte sanien ori galdu sen (Eibarren fabrika egin zenean hori galdu zen)*
- *etor danién dxaten egon gara (etorri denean jaten egon gara)*
- *etorri sarenien ikusi sitxut (etorri zarenean ikusi zaitut)*
- *etzera dxoanasién atie sarratute on da (etxera joan naizenean atea itxita egon da)*
- *txikitxuek ixen sirenien ba sur, bixi bear gendun eukin eskendun in txe (txikitxoak izan zirenean ba zuhur, bizi behar genuen eduki ez genuen egin eta)*

### Egunero

- *aik asten dienien ai padoas ostabere (haiek hazten direnean haiek badoaz ostabere)*
- *entierrue egote sanien, ba asto bete ogi ekarte seuen (hileta egoten zenean, ba asto bete ogi ekartzen zuen)*
- *eskolara dxoaten giñenien itxen gendun (eskolara joaten ginenean egiten genuen)*
- *eta apur bet sertuten direnien orrek berakatzak atara (eta apur bat zertzen direnean horiek berakatzak atera)*
- *gero kukue paretan danién martxan berak dxaten deu lelengo amordie (gero kukua paratzen denean martxan berak jaten du lehenengo amordea)*
- *iltxen danién abadie dxoaten da (hiltzen denean abadea joaten da)*

### Geroaldia

- *akabeta sunien etzera dxoango gara (amaitzen duzunean etxera joango gara)*

### Trinkoak

- *a sue akabetan doanien ain ganetik salteu te itxe san (su hura amaitzen doanean haren gainetik saltatu eta egiten zen)*
- *bakarrik dauenien negarres moduen egoten da (bakarrik dagoenean negarrez moduan egoten da)*
- *bidxer satosenien akabetan egongo nas (bihar zatozenean amaitzen egongo naiz)*
- *sarrari pasetan dake ba edadera fuerte doasenién ba inyerra gitxi deukienien (zaharrei pasatzen zaie ba edadera sano doazenean ba indarra gutxi daukatenean)*

- *txakurre bakarrik dauenien negarres egoten da (txakurra bakarrik dagoenean negarrez egoten da)*

### -NETI(K)

- *esan deurenetik gero etorko dire (esan dutenez gero etorriko dira)*
- *konbersasiño daroagunetik kónturetuten gara ser esan gure deuen (elkarriketa daroagunez konturatzen gara zer esan gura duen)*

### -NIK ONA

- *etor sarenik ona esitxut ikusi (etorri zarenik hona ez zaitut ikusi)*
- *ori ekar deunik ona esta etorri (hori ekarri duenik hona ez da etorri)*
- *arma fabrikie in yanik ona sorgiñik estau, se ak garbitxu itxus danak (arma fabrika egin denik hona sorginik ez dago, ze hark garbitu ditu denak)*

### -NERAKO

- *akabetan dunerako etorriko dire (amaitzen dugunerako etorriko dira)*
- *euspes imiñi, dxoan sirenako umie itxota (ahozpeaz ipini, joan zirenerako umea itota)*

### -N ARTIEN

- *suek ori itxen suen artien dxatekoa pestekot (zuek hori egiten duzuen artean jatekoa prestatuko dut)*
- *surok akabetan dosuen artien dxoango gara etzera (zuek amaitzen duzuen artean joango gara etxera)*
- *afaritxen egon garan artien argidxe dxoan da (afaltzen egon garen artean argia joan da)*

### -N BAKOTXIEN

- *datosen bakotxién afaritxen lotuten dires (datozen bakoitzean afaltzen lotzen dira)*
- *datorren bakotxién beti ekarten deu seuser (datorren bakoitzean beti ekartzen du zerozer)*
- *urtetan deuen bakotxién belu dator (irteten duen bakoitzean belu dator)*

## BAKIOKO HIZTEGIA

### **-N BAKOTXEKO**

- *nik asko sentiduten dotena da entzuten doten bakotxeko, telebosiñotik eta ori berbie (nik asko sentitzen dudana da entzuten dudan bakoitzeko, telebistatik eta berba hori)*

### **-N MEGIDEN**

- *itxen deuren meiden saltze itxus (egiten duten neurrian saltzen ditu)*

### **-N MODUEN**

- *einyu seuk esan dosun moduen (egin dugu zeuk esan duzun moduan)*
- *gastetan deu aberatza dan moduen (gastatzen du aberatsa den moduan)*
- *imintxen da olan a, len esan doten moduen (ipintzen da holan, lehen esan dudan moduan)*
- *kojiñek itxen diren moduen (kojinak egiten diren moduan)*
- *lepos edo al dan moduen edo selan edo alan iñ itxe seren (lepoz edo ahal den moduan edo zelan edo halan egin egiten zuten)*
- *nik preste dot dxatekoa amak esan deun moduen (nik prestatu dut jatekoa amak esan duen moduan)*
- *orduen emetik eta Bermiora al dan moduen igual oñes ametik Bermiora (orduan hemendik eta Bermeora ahal den moduan igual oinez hamendik Bermeora)*

### **-N MODURE**

- *nik itxen doten modure ayek esteure itxen (nik egiten dudan modura haiek ez dute egiten)*

### **-N MODUKOA**

- *ekar dot gastai bet suk ikusi dosun modukoa (ekarri dut gaztai bat zuk ikusi duzun modukoa)*
- *ekar dot alkondara bat aitxe tekon modukoa (ekarri dut alkondara bat aitak daukan modukoa)*

### **-N LES**

- *geur astelena dales ba biarrien dxoan gara (gaur astelehena den legez ba beharrean joan gara)*
- *ori kanpokoa dales estaki euskera (hori kanpokoa den legez ez daki euskara)*

- *an errotie daueles da errekie, ba andik urtetan deu (han errota dagoen legez eta erreka, ba handik irteten du)*
- *gasi dauseles erre itxe ixen deu landarie (gazi dagoen legez erre egiten izan du landarea)*

### **-N BESTE**

- *emen biar dan beste ardi dau (hemen behar den beste ardi dago)*
- *ori erosteko ba biar dan beste diru ekar dot (hori erosteko ba behar den beste diru ekarri dut)*

### **-N GAÑE**

- *ekarri du amak esan deuen gañe (ekarri dugu amak esan duen gaina)*

### **SELAN... -N**

- *selan usteltzen doan a au kentzen da, garidxoa iltxen da (zelan usteltzen doan hura hau kentzen da, garioa hiltzen da)*
- *selan lo lotze sien, eroate idxesan banaban oire (zelan lo lotzen ziren eroaten zituen banan banan ohera)*

### **SEMET ETA... -AGO... -N**

- *semet eta parajeau sausen obeto entzuten da (zenbat eta parajeago zagozen hobeto entzuten da)*

### **SEINYE... -N MODUEN**

- *one taus intxe seinye seitoak itxe sitxusen moduen (hauek dagoz eginda zeinda otzarak egiten zituen moduan)*

### **ZE HAR GALDERA**

- *badakixu ser in bear dosun (badakizu zer egin behar duzun)*
- *bakixu non ikusi gendun? (badakizu non ikusu genuen)*
- *bakixu nortzuk ixen sien? (badakizu nortzuk izan ziren)*
- *beraas paluas megiduten sendun señek asauau bota deun (beragaz makilagaz neurtzen zenuen zeinek asagoago bota duen)*
- *bost ixer bakixu selan dausen an (bost izan badakizu zelan dagoen han)*
- *dotie da, se diru emoten deuen (dotea da, ze diru emoten duen)*



## BAKIOKO HIZTEGIA

- *emen esangotzut nor dan (hemen esango dizut nor den)*
- *estaitx nongoa dan (ez dakit nongoa den)*
- *estakitx setako ibiltxen dan (ez dakit zertarako erabiltzen den)*
- *min non itxen dxakon tope itxen tzesu (min non egiten zaion topatu egiten diozu)*
- *oin bakixu senbe tekotesen? (orain badakizu zenbat dauzkadan)*
- *orretako in bixete san lelengo tronpaka señek gedxen dabillen (horretarako egin behar izaten zen lehenengo tronpaka zeinek gehien darabilen)*
- *pregunte itxen tzegun ia se denpora ingo deuen (itaundu egiten genion ea ze eguraldi egingo duen)*

### SEGUN... -N

- *segun selan asi dxakon esaten edo (segun zelan hasi zaion esaten edo)*
- *an urtetan dxien segun, selan igual, demoniño edo sera segun senbet punte dekon (han irteten zuen según, zelan igual, demonino edo zera según zenbat punta daukan)*
- *a segun selan usteltzen doan garidxoak kentzen doa (hura según zelan usteltzen doan garatxa kentzen doa)*
- *ak kantetan tzien segun umie tausen lo (hark kantatzen zien según umeak dagozen lo)*

### IDXAKETA... -N

- *idxaketa asi sun akabeixu (hasi duzunez gero amai ezazu)*
- *idxaketa emen gausen ikusten dxoango gara (hemen gagozenez gero ikusten joango gara)*

### 32.3. BA- MENPERAGAILUA

#### BALDINTZA ERREALA

##### Orainaldia:

- *asko edaten badosu gatx eileixu (asko edaten baduzu gaitz egin diezazuke)*
- *beyen lotzen bada urrau egunien denpora txarra (behean lotzen bada hurrengo egunean eguraldi txarra)*
- *botaten basus laurek eta sartzen basus barruen suretzako die intxurrek (botatzen*

- badituzu laurak eta sartzen badituzu barruan zuretzat dira intxaurrak)*
- *esin dxoalixike kotxerik espadekosu (ezin joan liteke kotxerik ez badaukazu)*
- *gabien goidxen lo itxen badeu urrau egunien denpora ona (gauean goian lo egiten badu hurrengo egunean eguraldi ona)*
- *gortie loi bakosu ardidxe beti dekosu loi (gorta lohi badaukazu ardia beti daukazu lohi)*
- *itxostxoridxe erridxen badatos denpora txarra dator (itsas txoriak herrian badatoz eguraldi txarra dator)*
- *muskerrak abise itxen deu sugoye badau paraje (muskerrak abisatu egiten du sugoia badago paraje)*
- *ogidxe espadakarre estu dxaten afaririk (ogia ez badakarte ez dugu jaten afaririk)*
- *ori ekarten baosu eroangot etzera (hori ekartzen baduzu eroango dut etxera)*

##### Iragana:

- *basora dxoan basiñen galdu ingo siren (basora joan bazinen galdu egingo ziren)*
- *etzera dxoan bagintzesan ikusiko gendun (etxera joan baginen ikusiko genuen)*
- *bestien etzera sartzen basiñen ordun irebasten sendun (bestearen etxera sartzen bazinen orduan irabazten zenuen)*
- *neu pere al ixen baneuen koxuko neuen baye esin koxu ixen dot (neuk ere ahal izan banuen hartuko nuen baina ezin hartu izan dut)*

#### BALDINTZA IRREALAK

- *suk ekarko basenkes ori geuk eroango genke (zuk ekarriko bazenu hori geuk eroango genuke)*
- *oba etorko balitxikes (hobe etorriko balira)*
- *dirue baneko gusteko leskitx ondo bixitxie (dirua baneuka gustatuko litzaidake ondo bizitzea)*

#### BA... MODUN

- *dxakingo baleke moduen itxen deu berba (jakingo balu legez egiten du berba)*

#### BA... BERE

- *txakoliñe imintxen basu be, ormien kontra es imiñi iños bere (txakolina ipintzen*

## BAKIOKO HIZTEGIA

*baduzu ere, hormaren kontra ez ipini  
inoiz ere)*

### **ZEHAR GALDERA**

- *pregunteixu orreri ia dxan gure badeu  
gedxau (itaundu iezaiozu horri ea jan  
gura duen gehiago)*
- *orre tiñue ia etorri balitxikes ona (horiek  
dinote ia etor litezkeen hona)*
- *estaitx etzien badau (ez dakit etxean  
dagoen)*
- *estakitx etor bada (ez dakit etorri den)*